



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko martxoaren 1eko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2022ko martxoaren lehenean, zortziak eta erdietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularatasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : CASIRIAIN Elena, HEGUY Antton

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile

Deialdiaren eguna : 2022ko otsailaren 25a

Afitxatze eguna : 2022ko otsailaren 25a

21. ERABAKIA: 2022 ARTZAINZA HOBETZEKO DIRU LAGUNTZA ESKAERA: “ANTZARAMENDI” D 442 eta D 389 LURSAILETAN KABALAK BAZKALEKURA ERAMATEKO BIDEAK SEGURU EZARTZEA Nomenklatura: 9.1

Jaun auzapezak artzaintza hobetzeko bi proiektuak aurkezten ditu, hots, ANTZARAMENDIKO ondoko lursailetan kabalak bazkalekura eramateko bideak seguru ezartzea:

- D 442 (83 935 m²)
- D 389 (328 910 m²).

Jaun auzapezak azaltzen du proiektu honen aztertzeko, Euskal Herriko Laborantza Ganbarako artzaintza zerbitzuekin eta laborantzaren eta bideen ardura duten herriko taldearekin gogoetak eramanak izan direla.

Jaun auzapezak gorago aipatutako ekintzari dagozkion aitzinikusitako gastuak aurkezten ditu:

-Euskal Herriko Laborantza Ganbararen aitzinkontua, dosierra muntatzeko:

1 250 euro BEZa gabe

-Firmin MACHICOTE enpresaren aitzinkontua, gorago aipatutako lursailak xehamakinaz garbitzeko:

9 240 euro BEZa gabe

Jaun auzapezaren azalpenak entzun ondotik, eta eztabaidatu ondotik, herriko kontseiluak:

Elkargoko eta herriko bazkalekuko transhumantzia iraunkortzeko eta indartzeko interesa **KONTUAN HARTUZ,**

Horretarako, hazleei lan baldintza ezin hobeak bermatzeko beharra **KONTUAN HARTUZ,**

Bi lursail horietan identifikatutako beharrak **KONTUAN HARTUZ,**

Aitzinikusitako BEZa gabeko 10 490 €ko estimazioa (obrak + laguntza teknikoa) **KONTUAN HARTUZ,**

Ondoko finantzabidea **KONTUAN HARTUZ:**

- Finantzabidearen tasa: %80
- Diru laguntza: 8 392 euro
- Autofinantzaketa: 2 098 euro

ONARTZEN DU ekintza eramatea gorago azaldu bezala,

EHLGko artzaintza zerbitzuaren **GAIN UZTEN DU** proiektuaren laguntza teknikoa,

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari ekintza honi lotutako urraspide oro abiatzeko eta dokumentu oro izenpetzeko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko martxoaren 1ean

Auzapeza,

Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,

2022/03/15ean publikatu edo notifikatu ondoan,

Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/03/15ean.

